

# Goierriarra

308. zenbakia 2006ko urriak 6

Izaro Garmendia 'Potxin'

## IRRIBARREAREN ARTISTA

DR. JOSE  
GISASOLA

3998 Elkargokidea

OSTEOPATIAN MEDIKUA



Andramari, 13 Ezk. Solairu-arte / 20200 Beasain / T 629 45 20 53  
Urbieta, 39 - 1º Ezk / 20006 Donostia / T 943 471 885

BIZKARREKO MINAREN TRATAMENDU NATURALA

Lumbalgia, Hernia Diskala, Ziatika, Migraina, Zefalea, Bertigoa, Artrosia, Buruhezur-aurpegiko mina, ATM



*Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:*

*I. Fdez Or naburu Dra.  
(Medikuntza estetikoan masterra)*

*A. Ramirez Baigorri Dra.*

*Kursal*  
ZENTRO MEDIKUA  
[www.kursal.es](http://www.kursal.es)

**943 88 22 51**


Garmendia Otaola, 7 - behea  
**BEASAIN**

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

**NOBEDADEA**

*ULTRASHAPE* CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

# berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.  
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.  
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.  
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

**Denda:** Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa  
Tel.: 943 653 307  
Tel. / Fax: 943 650 520  
E-mail: [muebles@berogas.com](mailto:muebles@berogas.com)

**Bulegoak:** Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa  
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977  
Fax: 943 675 421  
E-mail: [berogas@berogas.com](mailto:berogas@berogas.com)

[www.berogas.com](http://www.berogas.com)



**POLIURETANOZKO LEIHOAK**



## BERTSOTAN



Iban Urdangarin

## Militarren maniobrak

Zerutik edo erori diren hoietaz nahi nuke mintza pausoa ondo hartuta duten bi hankako ehun artista ardi mutur beltz ta mutur gorri a zer artalde anitza erdi artzain den sarjentu batek bideratzen die hitza euren eskortan kabitu ezinda gure larretan dabilta.

Kosta aldean hainbat protesta baina alperrik gehienak kamioi batek beste hiru jo orain ezdazkit izenak modu honetan ibiltzen dira burutik jota daudenak baina halere hauen aldean ez al dira okerrenak? lagun moduan dauzkagunak ta merke saltzen gaituztenak.

## Goierritarra

### HAMABOSTEKARIA

#### Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea  
BEASAIN

#### Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

#### Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.**

### Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## AURKIBIDEA

4. **Iritzia:** Rufino Iraola.
5. **Ingurugiro txokoa:** Partaidetza aukera gehiago ingurumenaz.
6. **Errezeta:** 'Arama dorrea'.  
**Aholkua:** Enpresa berri bat sortzeko.
7. **Kate motzean:** Saroi Jauregi.
8. **Erreportajea:** Nagusilan: borondatezko laguntza.
12. **Erreportajea:** Iñaki Agirrezabala: saskigintzaren ofizioari eutsiz.
16. **Elkarrizketa:** Izaro Garmendia 'Potxin'.
19. **Gazte leku:** Gorka Elustondo: Realean jokatzea amets.
22. **Non zer.**
24. **Iragarki laburrak.**
26. **Argazki zaharra.**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Rufino Iraola Garmendia

## Lehenago festen sinbolo eta 'parodia' gisa egiten dira oraingoak

**S**anta Fe Eguna da gaur: Zaldibiko festak. Niretzat, egia garbi aitortzeko, iraganeko zerbait dira festak. Gaur egun ez diet ikusten festei funtzio edo betekizun sozial handirik. Sasoi batean, bizitzaren parte ziren; gaur, aldiz, zerbait sinbolikoa dira, antzina zuten balio naturala sinbolizatzen dute. Zerbait izatekotan, iraganaren oroipena dira.

Erro-errotik aldatu da festaren izaera. Garai batean, egunerokotasuna eteteko egiten zen festa. Gaur, festa bera bihurtu da egunerokotasun. Adibidez, lehen, erlijioaren mendetik atera eta sentimenduak libratzeko sasoi zen festa-garaia. Esamodua onartzen badidazue, alberdanian ibiltzeko eta 'bekatu' egiteko aroa zen. Bazen lanaldi luzea, argitik argirakoa, bertan behera utzi eta obligazioez ahanzteko tenorea ere. Transgresioa eta 'desordena' ziren ikur. Nolabait esateko, tokian tokiko inauteri bihurtzen ziren; jendea zeharo transformatzen zen.

Gaur egun, urte osoan daukagu erlijioa bazterrera utzia, eta noiznahi dago 'alberdanian' aritzeko aukera ona. Esan genezake urte osoa dela inauteri. Denbora libre bihurtu zaigula ohiko eta arrunt. Ordea, gezurra badirudi ere; inora iritsi ezinik bizi gara. Autorik bizkorrenek ere ez digute konpondu arazoa. Festek ez dute mantsotuko gure abiada. Ez al da harregarria? Hala ere festak egin egingo dira, lehenago festen sinbolo eta parodia gisa. Ongi etorriak ingurutzen zareten guztiok.

Zaldibira hurbiltzen zaretenok, iaiztik aurtena, aldaketa batzuekin egingo duzue topo: batzuk urbanistikoak; besteak, politikoak. Urbanistikoen artean, Zela base-riaren atarian, errotonda berria aurkituko duzue. Hobeto esan, errotonda berritua, gain-gainean trikuharria duela. Gomendio bat egin nahi dizuet: kontuz ibili, Zaldibitik Ordiziara zoaztenean, nahiko arrisku-tsua dago; ez nik esaten dudalako, baizik eta 'Zaldibia' jartzen duen seinalea da horren lekuko; auskalo zenbat aldiz jo, eta bota, duten!

Bigarren berrikuntza urbanistikoa 'barriantea' da, Biloretik Goiko Bikarioetxera doana. Mesede handia izango da kaleak libratzeko, baina hor ere, sarreran, kontuz ibili, oraingoz arraro samar geratu da-eta. Uste dut gerora beste moldaera bat izango duela. Ordiziatik zatozela, ez dago zuzenean bariantean sartzerik, baizik eta herriatik datorrenari utzi behar zaio lehenengo pasatzen. Larraiztik Ordiziara zoaztenean ere, berdin.

Bestea politikoa dela esan dugu: tregoa. Hori ere nobedadea da. Horrek ere izan beharko luke bere isla festetan. Gorabehera dezente dabilen arren, uste dut itxaropentsu jarraitu behar dugula. Har ezazue gogoan datu hau: ni ez naiz sekula optimista izan tregoarean aurrean, ezta Lizarrako akordiookoa ere, baina oraingoa banaiz, arrazoiak emateko unea hau ez bada ere. Eta ohitura on bat berreskuratu dugu tregoarekin. Aspaldi utzi genion taberna eta lagunartean politikaz hitz egiteari, eta orain, osteria ere, ausartu egiten gara. Iruditzen zait aurtengo festetan, batez ere ordu txikietan, asko hitz egingo dela politikaz, elkarri txanda eman ezinik arituko garela, mundua konpontzeko garai eta egoera politikaz izaten baitira. Poza ematen du. Zalantza gehiago dut bertsoetan egingo ote dugun, oraingoak ez baitira lehenago festak.

*Bazen lanaldi luzea, argitik argirakoa, bertan behera utzi eta obligazioez ahanzteko tenorea ere.*



# kutxa

# Partaidetza aukera gehiago ingurumenaz

Nahiz eta komunikabideetan gutxi aipatua izan den, herritarron partaidetza eskubidearentzat oso interesgarria den lege berria onartu dute Espainiako Gorteek joan den ekainaren 29an, bertan ingurumen alorreko informazioa, partaidetza publikoa eta prozedura judizialerako sarbiderako eskubideak arautzen direlarik, honela Aarhuseko Hitzarmena lege bihurtuz. Aarhus legea oinarritzakoa denez gero, administrazio guztiek bete beharko dute: estatu, autonomia, udal mailan, e.a.



ten betebeharra ezartzen du, berau eskatua izan beharrik gabe.

Honela, agintari publikoek informazioa azkartasunez emateko obligazioa dutela azpimarratzen du, hilaletako gehieneko epe batean, izaera orokorreko kasuetan, eta bi hilabeteetan, gaia konplexutasun handikoa izan daitekeenean. Halaber, teknologia berrien aldeko apustua azpimarratzen du eta ingurumen alorreko informazioa banatu beharra, osasuna edo baliabide naturalekiko mehatxuzko kasuak izan daitezkeenean.

Legeak erabaki publiko-etakozko prozesuetan herritarren parte-hartzea ere bermatzen du, proposamenak egiteko epe nahikoak kon-

tenplatu, eta administrazioek herritarrek aurkeztutako oharrak kontuan hartzeko duten betebeharra xedatuz. Gainera, Gobernu Kanpoko Erakundeei ingurumen alorreko gaietan eragina duten prozesu administratiboetan interes kolektiboan titular gisa parte hartzea aitortzen zaie.

Justiziarako sarbideari buruz, testuak ingurumen alorreko erabaki administratiboetan gerta daitezkeen informazio eta parte-hartze eskubideen urraketaren aurrean, publikoak berauen kontra egiteko duen eskubidea aitortzen du, bereziki ingurumena defendatzeko helburua duten Gobernu Kanpoko Erakunde eta irabazi-asmorik gabeko pertsonen aldeko herri-akzioa aitortuz.

1998. urtean Aarhuseko hitzarmena onartu zenetik erakunde ekologistek etengabe eskatu dute lege bihurtzea. 'Ecologistas en Acción' erakundeak, lehenengo unetik, legearen idazketan parte hartu duena, lege honek suposatzen dituen aurrerapen eta hobekuntzak aitortu ditu, baina era berean adierazi du, ingurumen alorreko benetako partaidetza ez dela ziurtatzen lege honen bidez.

*Eduarne Huesa*

***Aarhus legea herritarron partaidetzarako aurrerapen eta hobekuntzak suposatzen ditu.***

## JAKIN BEHARREKOAK

**Urriaren 8an, Hegaztien Munduko Eguna Urdaibain eta Txingudin ospatuko dute**, hegaztien garrantzia ezagutaraziz eta arriskuan dauden espezieak babesteko eta haiek kontserbatzeko dagoen beharra azpimarratuz.

### **Aldaketa klimatikoa eta nekazaritza baliabideak:**

Mundu osoan eragiten ari den aldaketa klimatikoaren prozesuak nekazal eremuen produktibitatea gutxitzearekin mehatxatzen du. Prozesu hau, neurri handi batean hirietako kutsadurak eragina, basoak moztu izanaren ondorio ere bada. Elikagai produkzioan jaitziera nabarmenak ondorio larriak izango lituzke etengabeko hazkuntzan dagoen populazioa batengan.

### **FAO-ren arabera geroz eta nekazal landare mota gutxiago daude.**

Espezia barietateak %75 galdu dira. Industria agrokimikoarentzat errentagarritasun handien duen barietateak inposatzen dira. Izurriteek erraz erasotzen diete eta hazi hauekiko menpekotasuna sortzen da. Bertako haziek ordea gaixotasunen aurrean hobeak dira eta lurrari hobeki egokitzen dira.

### **OHARRA**

Orrialde hau betetzen lagundu nahi diguzu? Bada bidali [landarlan@yahoo.es](mailto:landarlan@yahoo.es) helbidera nahi dituzun albiste, gogoeta, kritika, artikulua, e. a.



**Junkal Elorza**  
Aramako taberna  
Arama

**Osagaiak (2 laguntzat)**

- 75 gr makarroi espiralak
- 200 ml. esnegaina
- 100 gr tipula
- 100 gr haragi txikitua
- 100 gr kalabazina
- 100 gr piper morroia
- 2 lata tomate frijitu
- Ahuntz gazta puska bat
- 3 urdai azpiko xerra

Makarroiak egosi, urari gazta eta olio pixka bat botata.

Zartagi batean oliotan tipula, kalabazina eta piperra jarri. Ondo egiten denean haragi txikitua gehitu eta ondoren tomate frijitu.

Plater batean maka-

roiak jarri eta erdian urdai azpikoa duela dorre forma borobila eman ondoren, erdian tomatea bota. Gainean gazta jarri eta labean sartu grill moduan.

Bitartean esnegaina berotu eta labetik ateratakoan inguruan bota.

**Nire kontura lan egin nahi dut. Zein pausu eman?**

**AHOLKUA**

Zeure enpresa propioa sortu nahian bazabiltza, nahiz autonomo gisa nahiz beste bazkideren batekin elkarlanean sozietateren bat sortuz, lehenbiziko pausoa, ideia horren azterketa sakona burutzea da. Horretarako, aditua den profesional batengana jotzea gomendagarria da oso, bere laguntzarekin bideragarritasun plan bat osatu dezazun.

Bideragarritasun planean sakonduko ditugu besteak beste:

- Garatu behar den jarduerara.
- Gure produktua edo zerbitzua zuzenduko dugun merkatuaren izaera.
- Ezarriko den marketing politika.
- Zein izaera juridiko hartuko dut.
- Hilero ordaindu beharrezko gastu orokorrak.
- Burutu beharreko inbertsioak.

- Lor litezkeen laguntzak.
- Finantzaketarako diru iturri ezberdinak

**Zertan laguntzen du bideragarritasun planak?**

Idea bat bideragarria den edo ez ikusarazteaz gain, ideia bera sakondu, negozio bat martxan jartzeko beharrezkoak diren baldintza eta puntuak aztertu eta idatziz jartzen lagunduko digu. Era berean dirulaguntzak lortzeko behar-beharrezkoa gertatuko zaigu eta are gehiago, gure hasierako ‘plan estrategikoko’ ardatz bihurtu genezake.

Behin proiektua bideragarria dela ikusi eta aurrera jarraitzeko erabakia hartu ondoren, negozioa martxan jartzen da eta horretarako hainbat tramite edo izapide burutu behar dira:

- Notarioria eta merkataritza erregistroa.
- Udaletxea.

- Foru Ogasuna.
- Gizarte Segurantzza.

Izapide orokor hauek gain, jarduera motaren arabera (osasungintzan, turismoan...), beste hainbat gestio ere gauzatu behar dira.

Behin enpresa osatu eta alta eman ondoren, hainbat zerga betebeharrak sortzen dira. Zerga betebeharrak hauen inguruan ongi informaturik egotea eta zuzen betetzea beharrezkoa da, inolako arazorik izan ez dezagun.

Betebeharrak guzti hauek aurrera eramateko, Bideragarritasun plana egiten laguntzeko nahiz enpresa baten gestioaren inguruko formakuntza jasotzeko badira egun hainbat programa martxan, guztiz dohakoak. Hauen artean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza martxan den ‘Txekin’ programa eta Jaurlarintzaren laguntza antolatzen diren formakuntza ekitaldiak.



**Pello Barandiaran**  
Gertu aholkularitza

**Olagi** Urte guztian zabalik  
Sagardotegia Sagardotegiko menua  
Jatetxea Kartak Sagardotegiko meua  
© 943 88 77 26 ALTZAGA

**LEIAR** **KRISTALDEGIA**  
ERAKUSKETA:  
Ezkiaga Pasealekua z/g  
☎ 943 88 88 24  
BILTEGIA:  
Salbatore Industrialdea  
☎ 943 88 60 70  
**BEASAIN**



“Oholtzan urduritasuna, poza, emozioa... baina batez ere ardura sentitzen da”

**Gustukoen dituzun gai motak:**

Bertsolariei planteatzen asmatuz gero, edozein gai izan dai-teke egokia.

**Bertsolaria erosen sentitzen den gai mota:**

Ez dut uste bertsolari bakoitzak gai mota bakarra aukeratu-ko lukeenik. Uneak, entzuleek, tokiak... asko baldintzatzen dute bertsolariaren lana.

**Eta entzuleak gogokoen duen gai mota?**

Gustu guztietako entzuleak daude. Batzuek umorezko gai arinak nahi izaten dituzte, beste batzuek gai sakonak... bai-na horretan ere eragina dute tokiak eta uneak.

**Bertsolaria gaia entzundakoa larri ikusten baduzu...**

Larri baino larriago jartzen naiz ni.

**Oholtza gainean zer sentitzen da?**

Urduritasuna, poza, emozioa... baina batez ere ardura.

**Eta kamara aurrean?**

Plazako jarduna baino lehorragoa da. Platoan ez dago, ez entzulerik, ez bertsolaririk... Emozio gutxiago sentitzen da.

**Bertsolari bat:**

Entzuteko, bat baino gehiago, unearen arabera. Nire bizitza konpartitzeko, etxean dudana; ni Goierritik joatearen arrazoi-a.

**BEC:**

Bertsolaritzaren katedral bihurtu zen iaz. Ederra izan zen,

historikoa, baina eguneroko saio txikiek egiten dute handi bertso-mundua.

**Plaza bat:**

Bertso-saio bat entzuteko, plaza asko izan litezke onak. Arratsaldea pasatzeko, Zaldibiakoa.

**Takolo, Pirritx eta Porrotx:**

Oholtza gainean trebatzeko aukera eman didan familia.

**Euskaraz askotan egiten dugun akatsa eta zuri belarri-ko mina ematen dizuna:**

"Ikusi nizun" esatea. Dena den, belarriko min handi-goa ematen dit euskaldunak gaztelaniaz hizketan entzuteak.

**Musika mota bat:**

Kanturako balio duen edozein.

**Liburu bat:**

'La herbolera', Toti Martinez de Lezearena

**Zaletasun bat:**

Lagunartean egotea.

**Zerk sortzen dizu negarra?**

Euskal Herriaren eta euskal herritarron egoerak.

**Eta barrea?**

Gauza askok. Ostiralean, adibidez, gustura egin nuen barre 'Kutsidazu bidea, Ixabel' filma ikusten.

**Gabirian**  
(Alegia auzoan)  
Ormaiztegiako Irizarren parean

**Eraikuntzan**

Etxebizitza bikainak:  
sotoa, behe solairua, 1. solairua

3 logela, 3 bainugela, terrazak,  
lorategi zabala, txokoa, garajea...

Eraikuntza berritzailea eta  
lehen mailako materialak

**ZUZENKO SALMENTA**

**ALBITXU**  
ERAIKUNTZA\_PROMOZIOA\_GESTIOA

Bizitza bakarreko 6 etxebizitza, binakako blokeetan



**INFORMAZIOA ETA SALMENTA: 943 16 10 32 - 652 77 57 41**



**www.xetai.net**  
Zurgintza eta altzarigintza zure neurria

Tel.: 658 70 99 22 Faxa: 943 88 85 41  
BEASAIN



# Nagusilan: borondatezko laguntza

**A**dineko pertsonengana laguntza, berotasuna, goxotasuna eta maitasuna eramatea dute helburu Nagu-

silaneko boluntarioek. Gustura daude egiten duten lanarekin, baina ez erabat: beharrak gero eta gehiago eta konplexuagoak direnez, denera ez baitira iristen. Adineko pertsonen bakardadeari arnasa pixka bat emateko, boluntarioak behar-beharrezkoak ditu Nagusilaneak. Era berean, gizarte osoaren konpromisoa eskatzen dute, adineko pertsonen inguruan sortzen diren arazoei aurre egiten laguntzeko.

GRAFICAS  
**EGUZKI**  
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17  
T/F 943 88 94 82

**Jauregi**  
TOLDOAK

INSTALATZAILE OFIZIALA

 **laza** LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain



Bakardadean daudenak eta ahuleziaz jota dauden adinako pertsonak animatzeko, kontsolatzeko eta laguntzeko prest dagoen boluntario taldea da Nagusilan. Adineko pertsonak dira Nagusilan osatzen dutenak. Batez ere, jubilatuenak, pensionistak eta etxeko andreak dira, baina gazteagoak ere hurbiltzen dira gaur egungo gizartearen arazoa bilakatu den bakardadeari aurre egiten laguntzeko. Joxe Joakin Lasa Beasaingo Nagusilaneko koordinatzaileak zehaztu duenez, "hasieran jubilatuen taldea izena zeukan baina gaur egun irekiagoa da, ez da jubilatuen taldea bakarrik. Gizonezko gehienak jubilatuenak badira ere, emakumezko gehienak ez dira jubilatuenak".

Gobernuz kanpoko erakunde da Nagusilan, inongo irabazi asmorik gabekoa. Apolitikoa eta akonfesionala. Nagusilan gertuagotik ezagutu nahi duenak, urriaren 7an, Beasainen ospatuko den Boluntario egunean, izango du aukera.

### **Goierrin 55 boluntario, Gipuzkoan 600**

Beasainen 2000. urtean sortu zen taldea; Ordizian, bi urte lehenago. Goierrin guztira, 55 boluntario ari dira lanean, bakoitzak ahal duen neurrian, beraien denbora eta laguntza eskaintzen. Gipuzkoan, guztira 600. Ordizian, 28 lagun ari dira; Beasainen, 27, nahiz eta momentuan 24 dauden aktibo. Miguel Calvillo Ordiziako koordinatzaileak adierazi digunez, Goierriko beste hainbat herritan ere ari dira Nagusilaneko taldeak sortzeko ahaleginetan, beharra, herri txiki nahiz handietakoa delako.

### **Laguntzak**

Udaleko Ongizate Sailarekin harreman zuzenean dago Nagusilan, adineko pertsonen errealitatea eta beha-



*Joxe Joakin Lasa beasaingoa eta Miguel Calvillo ordiziarra.*

## **Boluntario beharrea**

Momentuko beharrei ondo samar erantzuten badiete ere, boluntario gehiagoren beharrea dira Nagusilanen. Boluntarioak animatu nahi dituzte beraien denboraren zati bat beharrea daudenei eskaintzeko. Joxe Joakin Lasak adibide bat jarri du: "Beasaingo futbol zelaiaeren bueltan jende asko ikusten dut pasiatzen. Ni Arangoitin, eta hango galerian, gurpildun aulki bat hartu eta atzera eta aurrera nabilenean, futbol zelaian bezalaxe nabil han ere. Erresidentzian gurpildun aulkian geldi dagoen bat hartu eta galerian ordu erdi batean atzera eta aurrera ibiltzea, pertsona horri oxigenoa ematea da".

Miguel Calvillok gaineratu duenez, "boluntario bakoitzak erabakitzen du zenbateraino dagoen prest, ze konpromiso hartzeko prest dagoen. Astean egun bat, bi egun...". "Jende askok guk egiten dugun lana oso ondo ikusten du baina lanerako gutxi apuntatzen dira. Jendeak ez du konpromisorik nahi eta ikaragarri kostatzen da. Behin hasita, jendea gustura ibiltzen da", gaineratu du Lasak.

### **Ikastaroak**

Boluntarioentzako ikastaro bereziak antolatzen ditu Nagusilanek, adineko pertsonekin nola jokatu eta ahalik eta maitasunik gehien nola eman jakiteko. Boluntarioen artean ere hileroko egiten dituzte bilerak, bakoitzaren esperientziak, kezkek eta pozak elkarri kontatzeko.

### **Parte hartzeko gonbidapena**

Nagusilaneko boluntario bezala izena eman nahi duenarentzat, harremanetarako telefono zenbakiak eman dizkigute Calvillok eta Lasak. Ordiziakoa, 943805610; Beasaingoa, 943028049 (Joxe Joakin Lasa) eta 943886908 (bulegoa).

rrak bertan ezagutzen baitituzte ondoen. "Gainera guk ez daukagu egitura bat hori aurrera eramateko", zehaztu du Miguel Calvillok.

Laguntza ezberdinak ematen ditu Nagusilanek. Beharrak handitzen ari diren neurrian, Nagusilanek eskaintzen dituen zerbitzuak ere gero eta gehiago dira. Etxe partikularretan

daudenei, adibidez, enkar guak egiten lagundu, pasiatzera atera, tertuliatxoak eskaini, maitasuna eskaini. Miguel Calvillok adierazi digunez, "benetako arazoak etxe partikularretan aurkitzen dira. Pertsona batzuk ez dute esaten, baina konpainia behar handia daukate", gaineratu dute.

Arangoiti eta San Jose

erresidentzietan, Beasaingo Eguneko Zentroan laguntza eskaintzen dute, bai animazio eta bai konpainia laguntzak. Beraiekin bingoan edo kartatan jolastu, Jubilatuen Etxean ikuskizun bat edo festaren bat badago lagundu...

Medikuaren kontsultara laguntzeko aukera ere eskaintzen du, Nagusilanek



*Beasaingo Nagusilaneko bainbat boluntario, eta Nagusilanen beharra daukaten bainbat adineko, San Joan egunean egin zuten bazkariaren ondoren ateratako argazkian.*

## Esker oneko lana

Gertuko harremana sortzen da boluntarioaren eta adineko pertsonaren artean. Joxe Joakin Lasak aitortu duenez, "etxeetara laguntzera joaten hasi ginenean, erreserba gehiagorekin hartzen gintuzten. Baina gero eta onarpen gehiago daukagu. Lanik gehienak, kalera ateratzea eta paseatzen laguntzea izaten da eta zain egoten dira, gehienetan, kalera ateratzen den egun bakarrak, boluntarioarekin ateratzen dena izaten baita".

Dena den, gertuko harreman horri neurria hartzea ere garrantzitsua da. "Askotan gehiegi estutzen da harremana. Kontuz ibili behar da, laguntasun horrek gehiegi lotzen zaituenean, arazoak sortzen dira-eta. Distantzia jarri behar da. Konpromiso bat hartzen bada pertsona bat bisitatzera joateko, bete egin behar da. Asteazehaztutako orduak ere bete egin behar dira, bestela laguntza behar duenak tira egiten du gero eta gehiago. Neurtu egin behar da, boluntarioari lotura hori ez zaio komeni".

Calvilok eta Lasak aitortu dutenez, "satisfakzio handia jasotzen da. Gu agertzeko desiatzen egoten dira. Hitzik egiten ez duenak ere, irribarre egin du. Beste pertsona bati bizipoza eskaini diozula jakinda, pozgarria izaten da norberarentzat". Hori bai, askotan, pertsona bakoitzaren egoeraren arabera, bizipenak ere gogorragoak ere izan daitezkeela onartu dute.


bai herriko Anbulatoriora, Zumarragara edo Donostia-ra... "Beasainen, eskatzen dutenak baino askoz ere gehiago dira medikuarengana joateko laguntza behar dutenak, baina askotan jendeak ez du ezagutzen Nagusilanen zerbitzua. Gizarte Laguntzailearengana joan behar da horretarako", zehaztu du Joxe Joakin Lasak.

Elikagaien Bankurako jan bilketa ere izan dute aurren. "Carrefourren jan bilketa egin izan dugu. Urtean lau aldiz banatzen dugu jana, hau ere Udaleko Ongizate sailarekin elkarlanean".

Beasainen laguntza berezia ere eskaintzen dute Arangoiti adienekoen erresidentzian: hamabostean behin, Gurutze Gorriaren laguntzarekin, kalera ateratzen dituzte pasiatzera.

Laguntza behar duen gero eta adineko jende gehiago dago. Horren adierazgarri da, bai Beasaingo eta bai Ordiziako Nagusilaneko boluntarioek, gero eta laguntza ordu gehiago eskaintzen dituztela. Beasainen, adibidez, ia, 5.000 orduetik gora eskaini zituzten eta Ordizian, ia 6.700.

Ordiziarrak zehaztu duenez, "eguneroko lanik ez dugu egiten. Beste norbaiti lanpostua kentzen ari garela esan dezake norbaitek, baina hori ere ez da. Laguntza sinplea ematen dugu. Asteazehin behin edo bitan, berarengana joan, hitz egin, maitasuna eman... Pertsona batengana



**Mendizabal, C.B.**

**ITURGINTZA - BEROGINTZA**

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. **ZALDIBIA**

**IÑAKI ARIN**  
**Aseguruak**



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

**B E A S A I N**

## **B**oluntarioak denbora jartzen du, hortik aurrerako gasturik ez

ez gara egunero joaten”.

Lasak gaineratu duenez, “boluntario bakoitzak erabakitzen du zenbat eskainiko duen. Astean behin, bi aldiz... Normalean, gero eta gehiago eskaintzen dute”.

Momentuan behintzat, dauden boluntario kopuruarekin ondo iristen dira Ordizian behar guztiei erantzuteko; Beasainen, justu-justu dabilta.

### **Behar berriak, erantzun berriak**

Behar berriak ere sortzen ari dira etengabe gizartearen. Miguel Calvillok adierazi digunez, Ordizian, “orain eskatu digute, ijito familia bateko ume txiki batena, egunero egoteko eskaera jaso dugu. Baina zaila da egunero konpromiso hori hartzea. Gaia hor dago eta aztertzen ari gara. Etorquinekin ere antzeko zerbait gertatzen ari da, noizean behinerrako haurrak zaintzeko eskaintzak etortzen zaizkigu. Oraindik ez gara hasi, baina aztertzen ari gara. Baina hori, gizarte osoaren ardura da”, zehaztu du.

### **Erakundeen onarpena**

Boluntarioaren lana burutzerakoan, hainbat gastu sortu ohi izan dira. “Erresidentziakoekin irtetzen zara eta kafe bat hartzen dugu, edo beste bat Zumarragara eramane behar baduzu gasolina ere ordaindu egin behar da... Boluntarioei hasieratik garbi esan izan diegu, denbora berak jartzen duela, baina hortik aurrerako gasturik ez”, adierazi du Jose Joakin Lasak.

Hori dela eta, dirulaguntza behar-beharrezkoa izat-



*Ordiziako Nagusilan taldeko boluntarioak.*

## **Gizartearen arazoari gizartearen erantzuna**

Bakardadea da adineko pertsona gehienek arazo nagusienetakoa. Horrekin batera, etxebizitzetan igogailurik ezak sortzen dituen ondorioak eta herrian dauden oztopo arkitektonikoak dira adineko pertsonen arazorik handienak.

Nagusilaneak ondo dakite, boluntarioen lanarekin bakarrik ezin direla adineko pertsonen arazoak konpondu. “Gizarte arazoa dela konpromiso sozial gehiago eskatzen dugu, boluntarioen eta erakundeen aldetik”, azpimarratu dute Calvillok eta Lasak.

Askotan, lan egin nahi eta oztopoak ere aurkitzen dituzte bidean. “Udan adibidez, beroaren gaiarekin ere egin genuen lan bat. Baina medikuak ez zigun

zerrenda hori prestatu. Kontua da, 80 pertsona badaude beroetatik erostekak egitera ateratzerik ez daukatena edo eta zer moduz dauden jakiteko bositatu behar direnak. Hor beste ur batzuetan sartzen gara. Boluntarioak, kritikoa izan behar du”, zehaztu du Miguel Calvillok.

### **Ordiziako azterketa**

Ordiziako adineko pertsonen egoera ezagutzeko azterketa bat egin dute Ordiziako Plan Estrategikoaren barruan. Boluntarioen lanari esker, 2004. urteko irailetik 2005eko iralera bitartean egin zen ikerketa eta 66 urtez gorako 502 lagunek erantzun zuten inkesta. Ordizian, 66 urtetik gorako 1.683 lagun bizi di-

ra. Migul Calvillok zehaztu duenez, “gu Agenda 21aren barruan gaude eta Ordizian Gizarte Ongizatearen Kontseilua sortu dugu. Caritase, Gurutze Gorririk, DYAK, Kimetzek, Gazte talde batek, Nagusilane eta Udaleko bi zinegotzik osatzen dugu Kontseilua. Arazoak zeintzuk diren azaldu eta arazoari irtenbidea nola eman aztertzen dugu. Boluntario baten arazoren bat ikusten badu, transmititu egin behar du arazoa konpontzeko”. Beraz, boluntarioaren lana laguntza hutsean baino urrunago joan behar dela uste du ordiziarrek. “Boluntarioa ez da aurrean daukagun lan bat egitea bakarrik. Arazoak zerk sortzen dituen aztertu behar

ten da Nagusilanen lana aurrera eramateko. “Erakundeen errekonozimendua behar-beharrezkoa daukagu”, gaineratu dute. “Nik ukatu egin izan dut beti, diru eske joan beharreko lan hori. Guk egiten dugun la-

na egiteko gu diru eske joan? Aberrazio bat iruditzen zait hori. Baina beharrak larri samarrak zirenez, iaz Goierriko hainbat kooperatibatan eta enpresatan diru eske ibili gara. Momentuz, kooperatibek bakarrik eran-

tzun dute baiezkkoa. La Caixarekin ere zortea izan dugu”.

Dirulaguntzaz gain, elkartearantzako egoitza ere eskatzen dute, orain, astean behin baitute egoitza, Kontsumitzaileen elkartearen.



# Saskigile familia

*Matxinbentako  
Iñaki Agirrezabalagak  
saskigintzaren ofizioari  
eusten dio*

**E**txean betitik egin izan duten lanari, saskigintzari, heldu zion Iñaki Agirrezabalak 27 urte zituela. Ordura arte erremontean aritu zen baina kontraturik berritu ez ziotenez, bere bizitza berbideratu beharra izan zuen. Gaztainezko saskiak egiten ditu, 30 bat eredu ezberdin. Gustukoen, perretxikutarako saskiak egiten ditu matxinbentarrak.

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ 24 orduko asistentzia
- ✕ e.a.

**AUZOKI**  
Komunitateen administrazioa  
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea  
ORDIZIA  
Tel.: 943 087 486

**Osinalde s.l.**

---

**DESGUAZEA**

Tel.: 943 16 22 07    car.osinalde@terra.es  
 943 88 70 48    Igara industrialdea, z/g  
 Faxe: 943 88 28 01    ORMAIZTEGI

1982 eta 1983. urteak, urte madarikatuak izan ziren Iñaki Agirrezabalarentzat. Erremontean kontraturik ez zioten berri, eta txikitan zigor bezala jartzen zioten ogibideari, saskigintzari, heldu behar izan zion. Hurrengo urtean, labeak sua hartu eta 1983ko abuztuko uholdeetan, egurra edukitzeo putzuak urez gainezka egin zion. "Material guztia galdu nuen".

Beharrak eraginda, bere arbasoen ogibideari eutsi dio matxinbentarrak, eta ez da damutu. "27 urterekin, lanik gabe gelditu nintzen, emaztearekin eta urtebete-ko semearekin, eta zorrekin, etxea eta kotxea ordaintzeko".

Umetako zigorraren ondorioz ikasitako ogibidea du Agirrezabalak saskigintza. "Eskerrak ikasi nuen ogibidea. Baina hori bai, mainak eta trukoak, behin lanean hasitakoan ikasten dira. Lehenengotik ondo hasten ez bazara, lana ez da ondo bukatzen. Oraindik ere ikasten ari naiz".

### Familiaren ogibidea

Tradizio handiko ogibidea da saskigintzarena Agirrezabalatarren etxean. "Nire aitonaren aitak egin zuen otargintzarako prestatutako baserria. Bost seme-alabentzat prestatua". Egurra edukitzeko putzuak, labea, tailerra... Hala ere, bik bakarrik jarraitu zuten. Agustina Landa, Iñaki Agirrezabalaren ama izan zen, familia hainbeste urteko tradizioari eutsi ziona. "Etxean, gure amak eutsi zion ofizioari. Bi anaia bazituen, otargintzan fenomeno omen zirenak, baina Afrikara soldadu joan ziren eta bularretik gaixotuta etorri eta hil egin ziren, 22-23 urte zituztela. Beste anaia bat ere bazuen, baina hura apaiz joan zen. Holaxe, amak hasi behar izan zuen ofizioan, hamalau urterekin. 58 urte zituela utzi egin zion, ezindua

## Basotik dendara

Saskia egin aurretik, lan ugari egin behar izaten du artisauak: gaztainondoak landatu, egurra ebaki eta prestatu, saskiak egin eta ondoren azoketan edo Azpeitian duten dendan saltzen du Iñaki Agirrezabalak bere produktua.


Urtero gaztainondo sail bat landatzen du Iñakik eta urtarrileko eta otsaileko ilbeheran, 6-7 urte dituen gaztainondo saila ebakitzen du. Orain ordea, esperimentu berria egiten ari da Salamancako beste otargile batek gomendatuta: sail bakarra landatu eta entresaka egiren dio urtero kimu lodienak bakarrik kenduz.

Neurriaren eta erabileraren arabera sortatan sailkatu eta putzuan sartu behar izaten da egurra. Urez estalita edukitzen dira bertan, gehienera ere, urtebetera arte. Bi urte ere irau dezake. "Urtarrilean eta otsailean ebakitako egurra urte guztiarako prestatzen dugu. Egurra moztu eta lehenengo hilabetean egurrekin lana egin daiteke, izerdia edukitzen du-eta. Baina bi hilabetera lehortzen hasten da, pitzatzen, eta putzuan sartu behar da kontserbatzeko", zehaztu du Iñaki Agirrezabalak. "Egurra urez estalita egon behar du, ur-geldiarekin. Putzuak jarioren bat baldin badauka, bilatu eta konpondu egin behar", gaineratu du.

### Uretatik labera

Zumitzak atera aurretik, egurra duen ura kentzeko, labean sartu behar izaten da egurra. "Ur guztia kendu behar zaie, saskiak egiteko gauza izango badira. Labea bero-beroa jarri behar izaten da egurra behar bezala lehortzeko. Labean, bi burniren gainean jartzen dira egurra. Aldiko 15-20 egur. Eguerdiko 2ak aldean hasi eta iluntzeko 8ak aldeara arteko lana izaten da", zehaztu matxinbentarrak. Egurra zenbat lehortu, puntu hori hartzea omen da zailena.

Behin labetik aterata, azala askatu egiten zaio. "Labean lehortu ondoren, iho-zumitza edo tirak atera behar dira, gero limatu egin behar dira, txukundu. Hezetasunarekin utzi behar da eta puntu hori hartzea da zaila. Urteek ematen duten esperientzia behar da".



*Gaztainondo gazteak.*



*Uretan kontserbatzen da urtarrilean eta otsailean ebakitako egurra.*



zegoen-eta. Emakume bantzetan lantegi gogorra da hau: lepo alde gogor-gogor eginda gelditu zitzaien”, gogoratu du Iñaki Agirrezabalak. Agustinaren eskuetan ere nabari zaio.

Agustina Landa Bedaio-ko Jose Mari Agirrezabalarekin ezkondu zen. “Aita ez zen saskigintza lanbidearen jakitun, baina hark ere ikasi zuen. Zazpi seme-alaba izan zituzten, lau seme eta hiru alaba. Lau semei ere erakutsi zien saskigintza. “Lau anaiok hasi ginen lantegian, zortzi-bederatzi urterekin. Mutilei bakarrik erakutsi ziguten ofizioa, neskei ez, ofizio gogorra da-eta. Guretzako zigor bat bezala izaten zen, gurasoek esaten zigutenean zesta-egurra egiten hasteko”, esan du Agirrezabalak.

#### **Baserritik kalera**

Emaztea, Lurdes Etxaniz, ondoan duela, biek ekin zioten saskigintzari. Xexteria ere ireki zuten Azpeitin. Lurdesek darama dendaren

ardura; Iñaki, tailerrean aritzen da. Iñakik hasi eta Lurdesek bukatzen ditu saskiak. Semearen laguntza ere badute orain.

Iñaki aldaketak egiten joan da pixkanaka, garai berrietara egokituz. Batetik, lan egiteko postura aldatu du: “nik mahaiaren lanean egiten ditut saskiak, eta ez lur-rean, nire gurasoek egiten zuten bezala. Postura behartuagoa da lur-rekoa”.

Saskietan eta otarreetan ere egin dute aldaketarik. “Nire gurasoek batez ere, saski handiak egiten zituzten. Baserrietarako, arrantzarako, kaminoetarako... Sagar garaian sagarrak biltzeko egiten zituzten. Nik dena moldatu behar izan dut, jendearen eskaeren arabera diseinuak eginez. Fruituentzat, arrautzentzat... zerbitzua eta dekorazioa eskaintzen ditu gaur egun saskiak. Modelo berriak jendeak eskatzen ditu eta moldatu behar izaten da”, zehaztu du Agirrezabalak.

Gaur egun, 30 bat otar

## **Matxinbentako Erdiko Ostatuko semea**

Beasaingo Matxinbenta auzoko Erdiko Ostatuko semea da Iñaki Agirrezabala. Etxe berezia izan da Erdiko Ostatua: Saskigintzako tailerrez gain, taberna eta denda ere bai baitzeuden bertan. Lan bat baino gehiago egin behar izan dituzte Erdiko Ostatuan. Agustina Landak, astelehenetik ostiralera, saskiak egiten lan egiten zuen; asteburua, sukaldean pasatzen zuen, bazkariak egin eta zerbitzen. “Ostiral iluntzetan matantzak egin nituen, oilaskoak-eta...”. Agustina Landak aitortu duenez, “sukaldean gustorago ibiltzen nintzen, saskigintza lan gogorra da-eta”.

Iñaki Agirrezabalak gogoratu duenez, bere amonak ere “hiru lan batera egiten zituen: sehaskari eragin, saskiak ihotzen jardun eta lapikoa zaindu”.

Saskigileen auzoa izan da Matxinbenta. “Aitak esanda, garai batean berrogei otargile zeuden Matxinbentan. Nik hemezortzi ezagutu izan ditut”, dio Agirrezabalak. Gaur egun, hiruk jarraitzen omen dute.

#### **Auzo berezia**

Beasaindarra da Iñaki Agirrezabala, Beasaingo zatiko Matxinbentako auzokoa. Azpeitia, Beasain eta Ezkio-Itsasoko udalerriena da Matxinbenta. Erabakiak ere, hiru udalen artean hartu behar izaten dituzte.

# 30 saski mota egiten ditut. Perretxikuetako saskiak dira estimazio handienak daukatena.

mota egiten dituzte. “Perretxikuetako saskiak dira, estimazio handia daukatena”, aitortu du. Gustoren ere, perretxiku saskiak egiten dituela aitortu digu.

Bionboak, aulkiak... enkarguz lan egiten dute Matxinbentako Erdiko Ostatuan. Azoketara ere joaten dira beraien lana erakutsi eta saskiak saltzera. Azoketan “ondo saltzen da”. Azokarik gustukoena, gehiena saltzen dena, Errenteriakoa omen da.

Saldu ondo egiten dutela dio Iñakik, baina bere saskiak urrutitik ezagutzen omen ditu. “Bakoitzak bere saskiak ondo ezagutzen ditu, artzainak ardiak bezala”, azpimarratu du.

Artisautzaren egoeraz galdetuta, etxebizitzaren prezio altuak artisautzan eragirik baduela uste du Iñakik. “Kapritxoetarako, eta artisautza neurri batean hala da, diru gutxi dago”.

## Matxin I

17 urterekin, ikasturte amaierako bidaia Mallorcara egin zuen Iñaki Agirrezabalak. “Palma de Mallorcan frontoia martxan zegoen eta Urrestillako Auntxatarrak anaiak ari ziren jokatzeko. Kinielak ari ziren jokatzeko. Bihotzeraino sartu zitzaizdan”, aitortu du matxinbentarrak.

Mallorcatik itzuli zirenean, “Ramon Etxezarretak egunkarian kronika idazten zuen eta zesta punta, pala, eta erremonteko eskolak ematen zirela idatzi zuen. Azpeitin frontoi berria egin zegoen. Erremontea ez nuen ezagutzen, eta ni zesta punta ikastera joan nintzen. Baina erremontean jarri ninduten”. Gero, argazki batean, bere osaba apaiza, etxean egindako erremonteko saski batekin ikusi zuen. “Etxean egiten omen zituzten erremontekak eta nik jakin gabe”. Gaur egun, Galarretarako erremonteko saskien egiturak egiten ditu. Semearentzat ere egiten ditu.

Gustua hartu zion erremonteari eta 22 urterekin, 1978. urtean, profesionaletan debutuatu zuen, Galarretan. “Berandu hasi nintzen, 17 urterekin; anaia 12rekin. Nik indarra neukan baina anaiak, teknika. Kirol guztietan bezala, teknika sartu zen gerora. Galarretan eta Iruñan jokatzeko nuen”, aitortu du matxinbentarrak. “Anaia ere erremontean ibili zen erremontean. Hark txapelak irabazi zituen”.

Txapelik edo garaipenik ez, baina oroimen ona dauka Iñaki Agirrezabalak erremonteko garaiaz. “Lagunarte polita osatu genuen”. Tristurak baino poz gehiago eman omen dizkio erremontekak: “ondo zabiltzanean ikaragarri gustura ibiltzen zara baina diru asuntak ez badizu konpentsatzen lanean hasi beharrean izaten da. Baina lanean hasitakoan, pelotan jaitsi. Baina orain konforme nago, gehiago izan baitira eman dizkidan pozak, tristurak baino”. Erremontean eta lanean batera jardun behar izan zuen urte batzutan, entrenamenduetarako orduak handik eta hemendik lapurtuz. Azkenean, gurasoen ondanoan bukatu zuen. 27 urterekin utzi zuen erremontea.

### Enbor bereko espala

Semeari saskigintzako eta erremonteko zaletasuna txertatzen saiatu da Iñaki Agirrezabala. Momentuz, bietan jarraitzen du Igorrek, nahiz eta gogor samarra egiten ari zaion bilanak uztartzea.





**ASEPLAN S.L.**  
A H O L K U L A R I T Z A · E N P R E S A K

KONTABLEA  
JURIDIKOA  
LABORALA  
FISKALA  
MERKANTILA  
INMOBILIARIA  
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Tel.: 943 887 129  
Oriamendi 15, behea  
**BEASAIN**  
Tel.: 943 086 420  
J.M. Iturriotz, z/g



**IBAI ONDO**  
**ARROZTEGIA**

**Altzariak neurria**  
**Mota guztietako aroztegi lanak**  
**PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa**

**☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47**  
**Antzizar-Katea, 5 BEASAIN**

Logela, egongela  
eta sukaldeko  
altzari nahiz  
osagarrietan  
aukera paregabea



zaro Garmendia zaldibitarra sudur gorria jantzi eta Potxin bihurtzen da. Patxinekin batera Euskal Herri eta inguruetako haurrak alaituz ibiltzen da. Aurretik musika munduan urte askoan ibilitakoa da Izaro.

# Izaro Garmendia 'Potxin':

*"Hurrei galderak eginez eta beraien erantzunez kontatzen ditugu istorioak"*

**SILVIA MIRASCASAYAS**  
ODONTOLOGOA  
KOL. Zka. 649 RPS: 144/02

TEL./FAX: 943 88 92 87  
SAN INAZIO KALEA, 2  
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

**KAMIXETA ESTANPAZIOA**  
FOTOKOPIAK KOLERETAN

© 943 02 73 58  
Faxa: 943 02 79 39  
San Inazio, 5  
BEASAIN

**TOLARE**

**SAGAROTEGIA**

☎ 943 18 01 19 **ATAUN**



### **Noiztik zabilta pailazo munduan?**

1997-1998. urtean hasi nintzen, kasualitate hutsez.

### **Jakin al liteke zein izan zen kasualitatea?**

Pailazo zebilen bati ematen nizkion trikitixa eskolak. Uzteko gogoarekin zebilen. Nik jarraitzea planteatu zuen, probatxo batzuk egin eta harrezkero hemen nabil. Gero aukeratzea egokitu zitzaidan, bi lekutan batera ez dago egoterik-eta.

### **Aukeraketa erraza izan al zen?**

Trikititria jo eta pailazo ibiltzea, biak batera, zaila zen, bietan ere asteburuetan pilatzen baita lana. Batez ere, uda partean.

### **Hasieratik Potxin bezala ibili al zara?**

Ez. Nafarroako talde batekin hasi nintzen, 'Kiki, Koko, Moko eta Flash' taldean. Ni Flash nintzen. Taldea banandu egin zen eta Koko eta Flash-ek, Potxin eta Patxin sortu genuen, duela bost bat urte.

### **Potxin eta Patxin izenak nondik sortu zenituzten?**

Hori ere kasualitatea izan zen. Nik musika munduan lan egiten nuenean, musika taldeari 'Zapotxin' izena jarri genion. Horrela, 'Kiki, Koko, Moko eta Flash' etik banatu ginenean, kotxean elkarrekin joaten ginen eta izena pentsatzen ari ginela, nik 'Potxin' izango nintzela bota nuen. Nire laguna, Patxi zen, eta 'Patxin' bururatu zitzaion.

### **Pailazo talde dezente zabilzate.**

Niri pailazo hitza ez zait gustatzen guk egiten duguna definitzeko. Pailazoa zirko munduan egiten dena, clown munduan egiten dena da. Guk zirko munduan ibiltzen diren zati txiki batzuk aportatzen ditugu. Malabareak erabiltzen ditugu, Patxin-ek mimo paperean egiten du lana, pailazoen edo clown-en zati bat ere sartzeko, eta ez sudur gorria daramagulako baka-



*Lasalle-Sanjose ikastetxe ondoan argazkiak ateratzen ari ginela, bertako haurrek berehala ezagutu zuten Potxin.*

rrik. Euskal Herrian ezagutzen den pailazo mota nagusitik kanpo gaude. Ez daukagu, abestien jokorik, ez daukagu istorio bat abestiekin kontatzeko joera hori... Guk istorio bat kontatzen dugu, mimoa, malabareak... erabiliz, zirko beste elementu batzuk sartuz.

### **Orduan, nola esan behar dugu, Potxin eta Patxin...**

Nik artista hitza erabiltzen dut.

### **Zuen ikuskizuna beraz, zirko txiki bat al da?**

Beno, bai. Malabareak erabiltzen ditugu. Bai haurrei eta bai helduei, iruditzen zaie malabareak magia direla. Iruditzen zaie, imana daukatela malabareek, baina ez, malabareak teknika baten ondorioa dira.

### **Non ikasi duzue malaba-**

### **reak eta magia egiten?**

Orduak eta orduak sartuz. Magia ondo egiteko praktikatuz egin behar da, bestela, magia egiteko erabiltzen den elementua ikusi egiten baita.

### **Ikuskizunak zeren arabera antolatzen dituzue?**

Oso elementu xumeekin lan egiten saiatzen gara. Xumeak ez, ez dutelako baliorik, baizik eta garraiorako kamioirik ez daukagunez, saiatzen gara gauzak sartu behar diren lekua kontuan hartzen, gauzak jarri eta desmontatu nahiko bizi egin nahi ditugu, egun berean bi edo hiru saio batera egin nahi badira... Askotan xarma gehien horrek du.

Behin, Beasainen saio bat egin genuen eta batek esan zigun, bi emakume ari zirela komentatzen, bi la-

gun etorri zirela, momentu batean ipini zituztela... esan nahi izan zutena zen, ze gauza gutxiarekin egin zuten saioa. Gaur egun eszenatoki handia jarri behar da, argiak, ez dakit zenbat watioko soinua... Haurrei etengabe erakusten ari gara, zerbait antolatzeko material asko behar dela. Guk pixka bat, horren aurka ez dut esango, baina beste filosofia bat daukagu. Noiz arte? Materiala aurkitzen dugun arte. Gero eta zailagoa da materiala lortzea. Horrekin batera, ze material daukagun ikusten dugu. Eta materialari zukua atera behar zaio.

Urte guztiko lanik gogorrena ikuskizuna prestatzea da. Orain 3 bat urte, 'Patxin' hasi zenak, istripu bat edukizuen eta nahiko bakarrik gelditu nintzen. Gurpildun aulkian gelditu zen eta ikuskizunetara etortzeko aukerarik ez dauka. Prestatzen laguntzen dit, baina ez da berdina. Oraingo lagunak ere laguntzen dit, baina ideiak nik botatzen ditut. Berak lantzeko garaian laguntzen dit gehiago.

### **Nondik lortzen duzue materiala?**

**O**so elementu xumeekin lan egiten saiatzen gara, gauzak sartu behar diren lekua kontuan hartzen dugu, bizi jarri eta desmontatu ahal izateko.



**'Mendiari so' eta 'Herri tropikala' DVD-ak emanaldietan eta [www.potxinpatxin.com](http://www.potxinpatxin.com) behibidean saltzen dituzte.**

Zailena hori da, hemen ez baitago. Hemen esaten dudanean, Euskal Herrian, Espainian eta Europan esan nahi dut. Amerikako Estatu Batuetatik ekartzen dugu material asko. Internetez lan asko egin behar da materiala lortzeko. Plater bakoitzak adibidez, 7.000 pezeta balio zuen duela 5 urte. Orain dela urtebete bila joan eta ez ziguten saldu nahi izan, akatsen batekin zeudela eta. Azkenean, eman egin zizkiguten.

#### **Irakaslerik ba al daukazu?**

Iaz adibidez, latigo bat erabiltzen genuen eta bideoak eta liburuak hartu genituen, latigoak nola erabiltzen zen ikasteko.

#### **Haurrak tranpatxoak harrrapatu zain egoten al dira?**

8-10 urte bitarteko haurrak, askotan, behin 10-12 urtekoak, baztertuak sentitzen dira, beste fase batean sartuta daude, eta haur hauek malabareek erakartzen dituzte. Pentsatzen dute tranpa egiten dugula, iruzurren bat badagoela tartean... Egia esanda, nahiko azkar egiten ditugu gauzak, ez dago hausnarketarako tarterik. Denbora gehiegi utziz gero, despistatu egiten dira. Ezberdina da ikastetxe batean egin, txintxo-txintxo daudela, edo festetan egin, puzga-

## Sudur gorria

**Pailazoaren sudur gorria erabiltzen duzue, nahiz eta ez makilatu.**

Bai, hori hasieratik. Lehen, 'Kiki, Koko, Moko eta Flash'-en margotzen ginen, dezente baina, 'Potxin eta Patxin'-ekin erabaki genuen, margotzeari uztea eta sudur gorriarekin jarraitzea. Udan, lan asko izaten dugun garaian ere, izerdiarekin arazoa izaten da, baina, besterik gabe bereiztea erabaki genuen.

#### **Erraza al da haurren irribarrea lortzea?**

Niri ez zait zaila egiten, ez dakit erraza den ala ez. Egiten duzun horretan asmatzea da kontua. Zerbait prestatzen duzunean ez dakizu zein erantzun izango duzun. Askotan prestatzen duzunari, saioaren arabera, buelta ematen diozu, ez da entsaiatu bezala ateratzen. Denborak, haurrak, erakusten dizu zer esan behar duzun. Normalean guk erabiltzen dugun teknika, haurren arreta galderen bidez geureganatzea da. Patxin mutua izatearekin, Potxinek istorioa kontatu behar du. Galdera-erantzunen bidez kontatzen du.

#### **Eta gurasoen arreta erakartzea erraza al da?**

Eskoletan ikuskizuna egiten dugunean, haurrak askoz ere arreta handiagoarekin egoten dira. Gurasoekin daudenean, beste gauza batzuk izaten dira. Denetariko gurasoak daude, ikuskizuna jarraitzen dutenak eta beste batzuk, oilotegian bezala egoten direnak eta gainera, lehenengo ilaran jartzen direnak. Baina guk ez daukagu lotsarik eta beraiena joan eta disimuloan bidali egiten ditugu ondoko tabernara, kafea hartzera.

#### **Sudur gorria jantzitakoan asko aldatzen al da izaro?**

Egia esanda, aldatu egiten da bai. Haserreak eta egun txarrak denok ditugu eta aldaketa segituan egiten du. Gu behin iritsi eta muntatzen hasten garenean, gure lana hasten da. Gure ikuskizunak zenbat irauten duen galdetzen digutenean, ordubate esaten da, baina benetan, hiru ordu irauten du. Prestatzen ari garela han egoten dira haurrak eta bukatutakoan, oraindik eta gehiago. Gustatzen zaie guk erabilitako zapiaren atzean zer dagoen ikustea...

Baina trikitiarekin ere berdin gertatzen da. Denok ez dugu balio jendaurrean lan egiteko. Soinujole oso ona izan zaitezke baina oso gaizki pasatu jendaurrean. Plaza gizona ez bazara, asko sufrituko duzu.



rriak, barrakak, buruhandiak... inguruan direla.

#### **Euskal herri osoan mugitzen al zarete?**

Bai. Errioxara, Cantabria-ra... ere iristen gara.

#### **Gazteleraz beraz ere egiten duzue.**

Bai, noizean behin bai. Tris-tea da, baina Euskal Herrian bertan ere bai. Baina oso gutxi.

#### **Askotatik aldatzen al da euskaraz ala gazteleraz egin?**

**Umorean ere ba al dago alderik?**

Askotan ohitura kontua izaten da. Haurrak berdintsu ibiltzen dira. Zailena da, hemen lau saio segidan euskaraz egin eta gero gazteleraz egitea. Gainera gustatzen zait joaten garen lekuko euskalkia erabiltzea.

#### **Eta herri txikietatik handietara ba al dago alderik?**

Handia ez dut esango, baina badago ezberdintasuna. Herri txikietan, lotsatiagoak edo izaten dira. Herri bate-tik bestera, erreakzio oso

ezberdinak izaten ditugu. Askotan pentsatzen egoten gara, ez ote duten ulertuko esaten duguna, lotsa ematen ote dien parte hartzea... Bat, bi, hiru eta lau zenbatzeko esan eta batzutan ez dute esaten, egun on esan eta ez dute erantzuten... Agian, beste pailazo mota batzutarra ohituta egongo dira. Baina guk nahi izaten dugu publikoarekiko gertutasun hori, haurrak jolaserako, erantzuteko... behar ditugulako. Behin pelotaleku

batean, jendea gradatan zegoen, eta erantzunik apenas jasotzen genuen.

**Zuen emanaldietan inprobisaziorik izaten al da?**

Publikoak ematen duen erantzunaren arabera, asko jolastu behar duzu. Haur batek astakeria bat esaten badu, heldu egin behar zaio. Gure ikuskizunari xarma ematen diona hori da, momentuko haurren erreakzioak. Horri jokoa atara behar zaio. Saioa bukatu eta beti egoten da zer komentatua.

**Euskal Telebistan, Txirri, Mirri eta Txiribitonen saioan ere agertu izan zarete tarteka.**

Ni ez inoiz izan telebistan ateratzeko zalea. Esketx batzuk grabatzen ditugu. Haiek beste estilo bat daramate eta beraiek aukeratzen gaituzte, ezberdinak garelako.

**Telebistak laguntzen al du?**

Ez. Telebistan lan egiten ohituta dagoen jendeari iruditzen zaio telebistan lanik ez baduzu egiten, inor ez zarela. Hori denoi uste dut gertatzen zaigula: telebistan ateratzen dena norbait da eta bestea ez, eta ez gure lanean bakarrik. Baina guri ez digu lagundu telebistak. Beste lan bat da eta ondo dago. Kanean egiten duenak niretzat balore berdina dauka.



## Musikaria

Sudur gorria jantzi aurretik musikaria zen Izaro Garmendia. Umetatik hasi zen txistuarekin, herriko dantza taldearekin (ezkerreko argazkian, Tere Irastorzarekin batera, 1993a Zaldibiako jaietan txistua jotzen). Gero musika ikasketak jarraitu zituen, pianoarekin. 14 bat urterekin trikitiarekin hasi eta 16-17 urterekin herriz herri hasi zen trikitiarekin. 1988tik 1998ra bitarteko urteak egin zituen trikitiarekin, Zapotxin eta Arrasto taldeetan izan zen hori. Orain, trikitia, oso aukeratutakoetan jotzen du.

Trikitixaren egoera asko aldatu da azken urte hauetan eta hori izan zen Izarok pailazo izatea erabakitzearen arrazoi nagusia. "Nik pailazoetarako aukera egin banu, neurri batean, publikoaren esker ona jasotzeko egin nuen. Musikan esker onik ez zegoen, Plaza batera joan, bai trikitiarekin eta bai berberna taldearekin, eta inor ez egotea, eta kontratuan 5 ordu jotzea jartzan duelako jotzea, oso gogorra da. Gipuzkoako herri batean gertatu zitzaigun, izugarritzko euri jasa ari zuen, berberna jotzera joaten ginen eta bakarrik egon ginen. Eta inor ez zen etorri esatera, inor ez

zegoela eta etxera joateko. Diruagatik ez dut lanik egingo publikoa behar den historia batean, horretarako lantoki batera noa. Guk publikoa behar dugu eta publikoak erantzun egin behar du. Publikorik ez egon eta lan egin beharra oso gogorra da. Orain, afarietara edo gustuko lekuetara bakarrik joaten naiz. Egia esanda, zaila daukat biak uztartzea", dio Izarok.

Bere musikari ibilbidean hainbat abesti konposatu eta grabatu ditu Izarok, hauek dira esanguratsuenak: Kilometroak 95eko kantua, 97an Kiki, Koko, Moko eta Flax-en diskoa grabatu eta abesti bat konposatu zuen, urte berean, 'Osasunkume' proiektuan 'Gure mixina' abestia grabatu zuen, 'Mondeujaleen martxa' ere konposatu zuen, baita Ordiziako Argi Berri elkarteke 25. urteurrenerako abesti bat ere. "Jendeak animatzen nau diskoa grabatzen, baina nik zera galdetzen dut: zer egin behar ditut bi edo hiru abesti oso onak, eta beste guztiak betelana izan behar du? Ni horren aldekoa ez naiz. Abestiak beti egin ditut eta ordenadorean dauzkat denak gordeta. Egunen batean zerbaitetarako aukera badago egingo dut", azaldu digu Izarok.

ainaretxeberrria

**HANKARA**  
podologia zentroa

Tel.: 943 887 946  
Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN

**PSIKOLOGI KLINIKOA**

Jose Ramon Pato Prieto  
Psikologian lizentziatua  
Elkargokide zenbakia: E-2644  
RPS: 42001

**AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041**  
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

**biok** kudeaketa

z er bit zu ak fiskala

Tel 943 88 44 00 kontablea

Faxa 943 80 51 27 merkatala

www.biokzerbitzuak.com laborala

Ordizia Goierri, 12

# Gorka Elustondo: Realean jokatzeari amets

*'Sanse'n bigarren urtea du futbolari beasaindarrak*

**F**utbolaria da Gorka Elustondo, 19 urteko beasaindarra. Aurreko denboraldian 2.A mailara igotzeko zorrian egon zen Real Sociedad B taldearekin. Espainiako 19 urtez azpiko selekzioarekin Europako txapelketa irabazi du uda

honetan. Bolada polita ari da bizitzen eta Realeko lehen taldeko jokalaria izatea du amets. Horretarako lehen urratsak eman ditu, tarteko lehen taldekoekin entrentzeaz gain, aurrendenboraldian lagunarteko partidaren bat jokatu du.

**KONTSULTORIO  
MEDIKU-KIRURGIKOA**

*Goierriarrentzako  
mediku zerbitzu espezializatuak*

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60  
Faxa: 943 08 55 61  
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.  
**BEASAIN**

**ZUGAZTIBI**  
AHOLKULARITZA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble  
ajentzia

**e.txekin**  
www.txekin.net

zugaztibi@telefonica.net  
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58  
Faxa: 943 16 15 58  
Domingo Unanue plaza, 2 behea  
ORDIZIA

**9:30etik 19:00etara  
EGUERDIZ IREKITA**

Txikitatik gustatu izan zaio futbola Gorka Elustondori. Eskolarteko txapelketetan jokatzen hasi zen nabarmentzen, hori dela eta Segurako futbol eskolan izena eman eta Aitzgorri taldean jokatu zuen. Pare bat partidu bakarrik jokatu eta Real Sociedaden deia jaso zuen proba batzuk egitera joateko. Harrezkeroztik Realean dabil.

**Beasaindik Segurara joan zinen. Beasainen ez al zenuen lekurik aurkitu?**

Garai hartan, Beasainen ez zegoen talderik gaztetxo mailan. Seguran bakarrik zegoen aukera.

**Zenbat urterekin joan zinen Real Txikira?**

10-11 urterekin, alebinetan hasi nintzen. Oso esperientzia polita izan zen. Madrilen Torneo bat jokatu genuen. Oso polita izan zen.

**Orain 'Sanse'n zabilta.**

Bai, aurten bigarren denboraldia izango dut Realaren bigarren taldean, 2.B mailan.

**Realeko harrobian beraz.**

Bai, batzuk bidean gelditzen dira baina guk orain arte zortea eduki dugu.

**Iazko denboraldian, Sansearekin 2.A mailara igozteko zorian egon zintzen.**

Azkeneko minutuan gola sartu zigun Las Palmasek, pena izan zen. Denboraldi oso ona egin genuen. Baina bi partidutara jokatzen da igo ala ez, eta zorte txarra



**Erdilaria**

Beasaindarra. 19 urte. Erdilaria. 182 zm. 73 kg. Horiek dira bere datuak eta honela definitzen du bere burua jokalaririk bezala: "Erdian jokatzen dut. Taktikoki ondo posizionatzen naizen jokalaria naizela uste dut, nahikoa golpe ona daukat bi hankekin". Gaur egungo futbolearen fisikoak laguntzen du eta Gorkak ba du altura ere, "baina altuagoak ere badaude" aitortzen du.

izan genuen. Baina hura ere esperientzia ona izan eta ikasteko ondo etorri zaigu.

**Reala erakusleihu ona al da futbolaren munduan?**

Bai, Realak aukera hori ematen du, eskaparate ona da. Beasainen geldituta zailagoa da nabarmentzea.

**Zortea ere garrantzitsua izango da.**

Bai, lesiorik ez izatea, entrenatzailearen gustukoa izatea... Entrenatzaile bakoitzak bere gustua dauka eta zaila izaten da denen gustukoa izatea. Orain arte behintzat, zortea izan dut.

**Ezberdintasun handia al dago maila batetik bestera?**

Jubeniletatik 2.B mailara alde handia dago bai. Jende helduagoa dago 2.B mailan,

esperientziaduna, kalitatezkoa... Lan fisiko handia eskatzen du baina behin entrenamenduen martxa hartuta, ohitu egiten da.

**Entrenatzeko modua aldatu egin al da beraz?**

Intentsitate, erritmoa... beste exigentzia batzuk dira. Behe mailetan Realak normalean erraz irabazten du, baina 2.B mailan denak dira onak eta aurkari zailak dira.

**Entrenamenduak egunero izaten al dituzue lehen taldekoak bezala?**

Batzutan gehiago ere bai. Aurre denboraldian, goiz eta arratsalde entrenatu dugu, hiru egunetan goiz eta arratsalde, beste hiru egunetan goizez bakarrik... Egun bat izaten dugu jai.

**Dirudiena baina gogorra-**

**goa da, beraz, futbolaria-  
ren lana.**

Bere sakrifizioa dauka, baina, gustatu egin behar da. Uztaile erditik entrenatzen hasi behar da besteak oporretan dauden bitartean... Baina gustatu egiten zaigu eta gustura egiten dugu.

**Ikasketetarako tarterik uzten al dizu futbolak?**

Ahal duguna egiten dugu. Iaz hasi nintzen ingenieritza egiten baina utzi beharra izan nuen. Entrenamenduak, Espainiako Selekzioarekin Madrila joan beharra...alde batera utzi nituen ikasketak. Aurten, Tolosan, Goi mailako modulo bat egiten hasiko naiz, Administrazio eta Finantzak. Ahal den bezala moldatu beharko da. Ikasi



**ANZIZAR, S. A.**




**Autoen salmenta  
Mekanika eta  
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**  
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48



ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK  
J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



**GERTU**  
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 **BEASAIN**  
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33  
gertu@gertuasesores.com

beharra dago, etorkizunean ez baitakigu zer izango dugun, edozein lesio gertatu liteke...

**Espainiako Selektzioarekin Europako txapelketa jokatu duzu, 19 urtez azpikoan mailan eta txapel-dun atera zineten. Zer moduzko esperientzia izan zen?**

Denboraldi erdialdetik aurrera deialdiak egiten hasi ziren Espainiako Selektzioarekin, Madrila joateko. Deialdietan sartu nintzen eta azkeneko deialdian 18 futbolari aukeratu zituzten eta ni aukeratu ninduten. Poloniara joan eta irabazi egin genuen. Esperientzia polita izan zen.

**Zer moduzko giroa aurkitu zenuen Espainiako Selektzioan?**

Giro polita. Oso giro ona zegoen aldagelan, madrildarren bat edo beste nabarmentzen zen, baina... Normalean giro ona zegoen eta gustura ibili naiz.

**Titular izan al zinen selektzioan?**

Ez. Maila txikiagoetatik datozen futbolari asko daude eta ni aurten lehenengo aldiz joan naiz. Joatearekin bakarrik nahikoa nuen. Erakusleihen ona da. Hurrengo urtean Mundiala izango da eta ea joateko aukerarik daukagun. Zaila izango da baina...

**Sansen gehienez 4 urte egiten dituzue. Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Bigarren urtea dut Sansen eta gauzak ondo joaten balira, suposatzen da lehenago izango dudala igotzeko aukera. Baina nire helburua, aurten ere denboraldi on bat egitea da, ahalik eta ondoena jokatzeko. Tarteka joaten naiz lehenengo taldekoekin entrenatzera, lagunarteko partiduren batean minuturen batzuk jokatu ere bai...

**Realeko lehenengo talde-ira iristeko ze aukera ikusten duzu?**

Hori nahi dugu denok,

## Laburrean

**Jokalaria bat:**

Asko daude, baina gertuko bat esateagatik, Xabier Alonso esango nuke. Realean hazitakoa da, Liverpoolen jokatzen du...

**Futbol zelai bat:**

Anoeta esango nuke. Gustatuko litzaidake futbol zelaietan jendea gertuagoa egotea, baina jokatu dudanetan sentsazio onenak Anoetan izan ditut.

**Futbol talde bat:**

Real.

**Entrenatzaile bat:**

Orain arte izan ditudan guztiak, denetatik zerbait ikasi dut eta. Bestela, Bartzelonako Rijkaard. Jokalaria izan da eta jokalaria ulertzeko gaitasuna dauka. Hori oso garrantzitsua da, egoera asko, hobeto ulertzen direlako. Gaur egun, geroz eta futbolari ohi gehiago daude entrenatzaile.

**Kirol bat, futbolaz gain:**

Tenisa. Baina orokorrean denak gustatzen zaizkit.

**Zaletasun bat:**

Hondartzara joatea.

**Musika mota bat:**

Denetik entzuten dut. Momentu bakoitzean gorputzak eskatzen didana.

**Sartu duzun golik bereziena?**

etxetik ahalik eta gertuen gelditu eta ahalik eta gorena igo. Baina badakigu futbola ez dela talde bat bakarrik, kanpora ere joan daiteke. Zaila izango da Realean bertan gelditzea baina...

**Nola bizi duzue jokalaria gazteok, etxeko jokalaria kanpora joan eta etxera kanpokoak ekartzea?**

Futbolak buelta asko ematen ditu. Kanpotik ekartzea, etxekoentzako kaltea da. Baina lehiakortasun handia dago eta aurrean egon nahi da eta ikusten bada etxeko-



ak baino hobeto erantzungo duela kanpokoak, kanpokoak ekarriko dituzte. Baina nik ikusten dut etxean ere ateratzen direla jokalaria, eta aterako direla.

**Realean gelditzea al da zure ametsa?**

Bai, txikitatik izan da nire ametsa, nahiz eta jakin zaila da. Lana egin behar da, eta ez dezadala inoiz kezka hori eduki, ahal nuen guztia ez nuela eman.

**Kanpora joateko aukerari ez diozu uko egiten.**

Ez, ahal bada hemen gelditzea da helburua baina ezin bada, beste aukera batzuk

ke. Sevilla ondo ibiliko dela dirudi.

**Bartzelona ere gustatzen zaizu ezta?**

Bai, txikitatik. Realaren ondoren nire taldea da. Gertutik jarraitu izan dut beti.

ere badaude, bai Espainiako beste talde batzutarra, bai Ingalaterrara... Talde asko daude eta batean ez bada bestean izango da lekuren bat.

**Realeko lehen taldean zuek mirestutako jokalaria izango dira. Zein sentipen izaten da haien ondoen aritzean?**

Guretzat idoloak izan dira baina mundu honetan zaudenean, egunero ikusten dituzu eta ezberdina da. Ez dituzu idolo bezala ikusten, beste edozein pertsona bezala baizik. Baina egia da beste sentsazio bat dela.



Beasain

## V. Boluntario eguna

Urriaren 7an, larunbata, goizeko 10etatik eguerdiko 1,30etara, Gernika pasealekuan izango da aurtengo Boluntario eguna.

### Egitaraua

**10:00etatik 14:00etara:** Haurrentzako jolasak, puzgarriak.

**11:00etatik 14:00etara:** Elkarteen materiala eta produktuak jasotzeko aukera.

**11:15ean:** Musika eskolako trikitilarien saioa.

### Parte hartuko duten elkarteak

Nagusilan, Gurutze Gorria, Txolarte, Goitzat, Esku Batuak, Minbiziaren Aurkako Elkartea, Taupadak, Haurralde, Sahararen Aldeko Elkartea, Erreritatu eta Pentsiodunen Elkartea, Osasun Pastoral, Caritas, Txilibutxof, Herriak Elkarlanean eta Odol-Emaileak.

Ordizia

## Artisaualdia 2006 Beti Alai pilotalekuan

Orain arte Majori kiroldegian egin bada ere, aurtengo Beti Alai pilotalekuan izango da Artisaualdia. Gipuzkoako artisauen azoka urriaren 12, 13, 14 eta 15ean egongo da zabalik, goizez 10:30etik 14:00etara eta arratsaldeaz 17:00etatik 20:30era. Aurtengo Artisaualdiaren gai nagusia 'Artisautza eta etxebizitza' izango da.

Beti Alai pilotalekuan 37 artisauen lanak ikusteko eta erosteko aukera izango da. Gehienak gipuzkoarrak izango dira, nahiz eta Nafarroatik, Bizkaitik eta Arabatik etorritakoak ere izango diren. Bertaratzen direnek, artisauen lanak ikusteaz gain, hainbat zozketetan parte hartzeko aukera izango dute, baita zuzeneko musika entzun, bertan jarritako 4 monitoretan erreportajeak ikusi, hitzaldiak aditu edo taloak jateko ere.

### Tailer eta erakusketak

Batez ere haurrentzat 'kartoi eta puxikazko eraikuntza eta dekorazioa' tailerra emango du egunero Hodei San Buenaventurak. Arantxa Pascualen 'Gure etxebizitza artisaua' eta Karlos Irazuren 'Marraskiloak' erakusketak egunero izango dira ikusgai eta azken honen egur taila erakustaldiak ere egingo ditu pilotalekuaren kanpoaldean.

### Hitzaldia

'Feng shui diseinua eta habitata' hitzalida emango du Iosune Zafra De Juanek, urriaren 13an, ostirala, 18:30ean, Barrena kultur etxean.



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria.



### JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55  
Cuatrovientos Industrialdea, 1  
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

*Aseguru konnerdunia*

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea  
Tfnoa.: 943 88 86 20  
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41  
Faxa: 943 88 91 18  
LAZKAO

# Autowag



☎ 943 888 254  
☎ 943 888 266  
Faxa: 943 888 105  
N-1 errepidea, 419 Km  
**BEASAIN**

## Iragarki laburrak:

Hemendik aurrera Goierritarrako iragarki laburrak kobratu egingo dira,

hitz bakoitzeko 0,60 euro.

Horren truke, iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da [www.goierriko-hitza.info](http://www.goierriko-hitza.info) webgunean.

### Harremanetarako:

943 88 96 12

[goierritarra@goierriko-hitza.info](mailto:goierritarra@goierriko-hitza.info)

[gh@goierriko-hitza.info](mailto:gh@goierriko-hitza.info)

### ETXEBIZITZAK

#### salgai

**Beasaingo** erdigunean etxea salgai. Sukaldea, egongela, bi logela eta komuna. Oso egoera onean. Garajea ere aukeran. 645705287.

**Idiazabalen** etxebizitza salgai. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongelarekin. 638872270 - 653708947.

**Ordizian** pisu berria salgai: sukaldea, egongela, 2 logela, 2 komun, terraza eta trastalekuarekin. 49.000.000. Deitu. 686959064.

**Lazkaon** etxebizitza salgai (Gurutze kalea, 1-8.), herri erdian, bista paregabeak, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastalekua eta balkoi handi bat, 2 igogailu. 670588470.

**Itsasondon** etxea salgai, berrirezko. Baratzerako aukerarekin. Aukera ona. 696218195.

**Segurako erdigunean** 72 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, egongela eta ganbara. Altzariekin. Garajea aukeran. 943801736.

**Ataunen** pisua salgai, berriro ondoren estreinatzeko. Sukaldea eta bainugela jarrita. Bi logela eta egongela. Leku onean. Aukera. Inmoeki: 675705268.

### errentan eman

**Urretxun** pisua alokatzen da. 635714580.

### errentan hartu

**Ormaiztegin** pisua alokatu nahi dut. Sandra. 616580253.

### elkarbanatzeko

**Lazkaon** logela alokatzen dut elkarbanatutako pisu batean. 678228031.

**Bilboko** San Inazio auzoan neska bat behar da pisua konpartitzeko. 667001562 - 685775491.

### BASERRIAK

#### salgai

**Zaldibian**, baserria salgai. 943880915.

#### erosi

**Goierriin** borda edo baserri txikia erosiko nuke. Baserri handi edo inmoiliarik ez. 692115273 - 653743943.



# izal

IMAZ eta CONTRERAS

ONDramuño  
baserria  
IDIAZABAL

☎ 943 187 049  
☎ 943 187 045

PINTURA eta PAPERGINTZA



# Pottoka

K A F E T E G I A

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitarakoak

Legazpi kalea, 3    ORDIZIA    ☎ 943 16 03 04

## Ikaskide

irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5    943 160 120  
Beasain    [www.ikaskide.net](http://www.ikaskide.net)

### TAILERRAK

- ✓ Ikasketa teknikak
- ✓ Barreterapia
- ✓ Erlajazio teknikak
- ✓ Nola aurkitu lana
- ✓ Jende aurrean hitzegi
- ✓ Emozioen kontrola

### ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Lehen Hezkuntza
- ✓ DBH
- ✓ Batxilergoa
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Arreta pertsonalizatua
- ✓ Talde txikiak

### INGELERA

- ✓ Maila guztiak
- ✓ Haurrak: 6 urtetik aurrera
- ✓ Azterketa ofizialak prestatzeko aukera (KET, PET, First Certificate)

### INFORMATIKA

- ✓ Photoshop
- ✓ Power point
- ✓ Web orrien diseinua
- ✓ Office
- ✓ Mekanografia

2006-2007 IKASTURTEA  
 MATRIKULA IREKIA



## GARAJEAK

### salgai

**Lazkaon** lur azpiko garaje itxia alokatzen da Jose Lasa kalean. 943885574. Iluntzetan deitu.

**Ormaiztegin** lur azpiko garaje itxia alokatzen da. 609411811.

**Lazkaon** 43 m<sup>2</sup>ko garajea salgai. 635872270 - 653708947.

## NEGOZIOAK

### leku aldaketa

**Jos&Bel.** Hemendik aurrera P21 mertalgunean egongo gara, Ordizia Osasun Zentroaren gainean.

## IBILGAILUAK

### salgai

**Ford Fiesta** I. I, gasolina, salgai. 1990. urtekoa. Oso egoera onean. Oso merke. Garaje an gordeta egoten da. 636620182 - 943884535.

**Volkswagen Passat** 1900 TDI autoa salgai. SS-BK. 645006737.

## BESTELAKOAK

### salgai

**Sutarako** pago egur lehorra salgai. Etxera eramaten da. 615755762.

**Duccasa** akumuladoreak salgai. 670562800.

**Prensa eta sagarra txikitze** makina salgai. 943887726.

**Eskopeta**, superpusta, salgai. 943801179.

**Shoei** markako kasko berria salgai, oso prezio onean. 661276347. Amaia.

**Ziklomotorea** salgai, Kinko Dink 5 (500 euro, negoziagarririk). 943160377.

## LANA

### eskaerak

**Lazkaoko** taberna batean sukaldaria behar da. 685735651.

**Pertsona** bat behar da Lazkaoko taberna baterako egun erdiz lan egiteko. 635747377.

**Gaztelekuan** asteburuan aritzeko hezitzailea behar da. Beharrezkoa begirale titulua eta Ega. 616806387.

**Zerbitzaria** behar da Beasaingo taberna batean. 676048552. Iza,

**Idiazabalen** pertsona ardura tsua behar da 8-10 urte bitarteko bi haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. 649600827.

**Zerbitzari euskalduna** behar da jatetxe baterako. Esperientzia badu hobe. 615745924.

**Zegaman**, Itzalan tabernari euskaldunak behar dira. Eguneroko edo astebukaeratarako kontratuarekin. 658705331 - 685704619.

**Jatetxe batean** larunbatetako zerbitzaria behar da. 630402575.

**Seguran** neska bat behar da etxeko lanak egin eta umeak eskolara eramateko. Ibilgailua beharrezkoa. 943801088.

**Begiralea** behar du Xapobixi aisialdi elkarteak, arratsaldetan lan egiteko. Interesatuak bidali curriculum irailaren 22rako. ioana@gaztesarea.net-era.

**Pertsona** bat behar da Beasaingo tabernan lan egiteko. 943160205.

**Akademiak** irakasleak behar ditu gai desberdinetan adituak. Kurrikulumak honako helbidera bidali: 61 posta kutxa, 20240 Ordizia.

**Zerbitzaria** behar da erretegi baterako larunbat gau eta jai batzuetarako. 615700408.

**Mandio** tabernarako zerbitzaria behar da. 943801705.

**Legazpiko** taberna batean pertsona bat behar da tabernari lanerako. 659652198.

### eskaintzak

**Umeak edo adinekoak** zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest nago. 630174103.

**Sukaldari laguntzaile** bezala lan egingo nuke. 664266989.

**Neska euskalduna** eskaintzen da umeak zaintzeko edota klase partikularrak emateko. Esperientziaduna.

**Arratsaldetan**, haurrak eta edadetuak zaindu edo zerbitzari bezala lan egiteko prest dago neska bat. 650940610.

**Emakumea** adineko pertsonak egunez edo gauzez zaintzeko prest dago. 616889923.

**Informatikan titulatu.** Ordinagailu konponketak egiten ditu. Oso merke. 676986446.



## Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

**Goierrierra** 24 euro

**hitza** 60 euro

Egin  bat aukeratutako kaxan  **Goierrierra** +  **hitza** 65 euro

Izen-abizenak: .....

Helbidea: .....

Herria: ..... NAN: .....

Telefono zenbakiak: .....

Kontu zenbakia(20 digitu): .....

Bidali txartel hau: Goierrierra, Urbialde plaza 7 behe, Beasain


## SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako  
gida-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76



**MUJIKA**  
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



**Ormaiztegiko 1949. urteko Olea baserriko sendia**

Ander Iurritak utzitako argazki honetan Olea baserriko Guerra Agirrebenboa sendia ageri da.

**Atzeko ilaran, ezkerretik eskuinera:** Joxe Guerra eta Joxepa Gorrotxategi (Andoainera ezkonduak), Bixente Guerra, Jexux Guerra, Baltasar Guerra, Martzial Guerra, Pakita Guerra, Angeles Mujika eta Alejandro Guerra (Beasainera ezkonduak).

**Aurreko ilaran:** Kasimira Guerra Bergara (izeba, Arrasatera ezkondua), Maria Agirrebengoa Arregi (ama, izatez Ormaiztegiko Arandi baserrikoa), Liborio Guerra Bergara (Aita) eta Martzelina Aranburu Arsuaga (izeba, Ormaiztegiko Arandi baserrira ezkondua).

Atal honetan argitaratzeko argazkirik baduzu, deitu 943 16 00 56 telefono zenbakira. Argazkiak itzuli egiten dira.

 **RENAULT**  
**LAZKAO GARAJEA**  
Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901  
Senpere Industrialdea LAZKAO

Kol. zkia.: 764



*Nerea Larrea Oyarbide*

Aho kirurgia  
Implantologia  
Periodontzia  
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

**IX ARTI/AVALDIA**  
GIPUZKOAKO ARTISTEN EGOKIA  
ORDIZIA 2006



**2006 URRIA**  
12 - 13 - 14 - 15  
Orduetgia: 10:30 - 14:00  
17:00 - 20:30  
**BETI ALAI PILOTALEKUA**

Amatasariak:        



EUSKAL HERRIKO GAY, LESBIANA, TRANSEXUAL ETA BISEXUALEN ELKARTEA

Arrasate 51, 3. esk. Donostia 20005  
 943 468 516  
 www.gehitu.net info@gehitu.net  
 Informazioa eta Laguntza (InfAsis) 902 200 096  
 infasis@gehitu.net

**BARANDIARAN**  
**Zeramikak**

ERREF. MAK    DISEINUAK    PROIEKTUAK    BAINUAK    HIDROMASAJU

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN  
 TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657  
 e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

Oskarbi Oinetakoak  
Nagusia 34  
Tel 943 881 944  
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak  
Nagusia 34  
Tel 943 884 104  
Beasain

Oskarbi Oinetakoak  
Sekundino Esnaola 8  
Tel 943 721 978  
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak  
Erdiko Kallu  
Tel 943 711 804  
Arrasate

